

MENDITXIKI

TRIANOKO MENDIETAN

Euskal Herrian burdinaren ustiapena ohikoa izan da mendi-tan zehar, baina leku bat bada benetan alpagarria, non burdin-meatzaritzak paisaia erabat eraldatu duen. Trianoko mendigune karstikoa da hori.



TESTU ETA ARGAZKIAK



Iosu Alberdi Balzaitegi
(Bergera, 1966)

Bergarako Pol-poi Mendi Taldean hezia, gaur egun Bilbao Alpino Clubeko kidea da. 2014tik 2019ra Mendibeki taldeko buruzkarietako bat izan zen. 2015ean Lemizako Etzandari Euskal Mendi Taldeko sortzailetako bat izan zen eta gaur egun taldearen sustatzailetako bat da.

Gaur, Triano mendietako bi tontor eta bi meatzte-aho ezagutuko ditugu. Etzandari mendi taldeko kideok. Urtarrilaren 28an gaude eta 2024. denboraldiako lehenengo irteera egin behar dugu. Peñas Negras Ekotxean hasi dugu txangoa, 4 zenbakidun "Goialdeko ustategiak" ibilbidea oinarri gisa daukana.

Ibilbidea bereizten duten marka moreak jarraituz hasi gara eta, di-da batean, konturatu orduko, Peña Pastoreseko ipar mendebaldeko mendi-lepora iritsi gara. Han, markak jarraitzeari utzi eta ezkerrean eginez, zelaitik gora, bakoitzak bere erritmoa aldapara egokituz, gailurrerantz abiatu gara: kareharritzko tontor bat da Peña Pas-

tores (673 m). Mendebalderantz, Peña San Juan ikus daiteke; hegoaldera, Eskatoabel bailara txikia eta izen bereko urmaela; ekialderantz, Picomayor, Picomenor eta Ganeran mendiek osatzen duten mendilerroa; iparraldera, Kantauri itsasoa. Bi kilometro ere ez dugu egin eta gure lehenengo tontorra ospatzen ari gara.



Mendebaldeko magaletik jaitsi gara. Bidezidor argirik ez dagoenez, larretan zehar bide balizatura itzuli gara. Bideak El Sauco iturrirantz egiten duenean, zuzen mendebalderantz abiatzen den bides hartu dugu. Dena den, ez dugu luze iraun bide horretan. Bides utzi eta sigi-sagatontor rera iritsi gara: Peña San Juan (669 m). Enkarterrietako bista itzelak ditugu orain eta, buzoitik metro gutxira, mendia bi zatitan zatitzen duen Dolores meategiko arrakala ikusgarria.

Gailurraz gozatu ostean, igotako larretatik behera egin dugu balizaturako ibilbidearekin berriro bat egitera. Larreak amaitzean, ganaduak zuhaitzen artean zabalduetako bidezidor bat topatu eta iturrira heldu gara. Bertan hamaiketako egin dugu bertako ur zoragarria dastatuz.

Berriz martxan, segituan El Sauco meategunera heldu gara. Meatzarien etxean hondakin batzuk gaitututa, kopeta-argiak piztu eta meategira sartu gara. Ehun bat metro makurtu barik erraz egin ostean, argia ikusi dugu eta orain bai makurturik argirantz jo dugu. Sorpresari Zerura zabalitzen den arrakala erraldoi batera iritsita,



El Sauco iturria

ahoko bete hortzekin gelditu gara. Higadurak zizelkatutako formak ederrak dira eta argiak eta ilunak sortzen dituzten inudiak ilunagarriak. Une magiko hori lurraren erraieran zoragarria izan da.

Irtzen gara bada meategitik eta, bizitako emozioak ezabatu ezinik, Uralлага kobazulorantz abiatu gara. Magdalena izenarekin ere ezaguna da, bere sarreran Magdalena basiliza dago eta. Uralлага y La Magdalena meatzate konpainiaren bulego-erakinean hondakinaren ondotik pasa eta gutxira, Magdalena kobazulorantz hartu dugu eta berehala Katilua izeneko

behatokira iritsi gara. Aldapa malikar tsuan Uralлага kobazulora jaitsi gara.

Sarrera ederra dauka haitzulok, 33 x 19 metrokoa. Historiaurrean jadanik gizakiak bertan bizi omen ziren. XIX. mendearen amaieran, Pepita izeneko meatzearen zati bihurtu zen eta, horregatik, gaur, kobazulo bat baino gehiago meategi bateko galeriak ikusiko ditugu. Hemen, El Saucon baino askoz metro gehiago egin daitezke eta asko disfrutatu dugu iluntasunaz, batez ere gure kopeta-argiek deskubritzen zitu zten forma eta koloreekin.

Kobazulotik irtetzerakoan, eguzkiak harrera ezin hobea egin digunez, bertan bazkaidu dugu. Ostean, berriz Katiluko behatokira igo eta handik ibilbide balizatura itzuli gara.

Buertan, Eskababel bailarabaxa inguratuz, Eskababelgo osinaren gainera heldu gara eta han Ubietarantz egin dugu beste meategiko arrakal batera heldu arte. Pitzaduran barrera, haitzean zulatutako arku batetik igaro eta gero, zelaigune batera iritsi gara.

Zelaiak pasata, pinudi batean sartu eta gorantz egin du bideak. Aldapa eroso denez, berehala heldu gara La Breña mendilepora. Bertan, informazio-gune zabal bat dago eta, zuzenean Ekoetxera jaisten den pista zabala hartuta, lasai-lasai amaitu dugu ahaztu egingo ez dugun gaurko ibilbide zoragarria.

Talde osoa Peña Sanjuanen

